

2002: urtebete eskas Eurora ohitzeko

■ Ezeren aldaketarik ez bada 2002ko lehen egunetik txanpon berria izango dugu patrikan ■ Hernanin, oraingoz, ez da ohitzeko ezer egitea pentsatu.

Nolakoak izango dira euroak?

TXANPONAK

Zent 1= 1,66 pta.
2 zent = 3,32 pta
5 zent= 8,3 pta.
10 zent=16,63 pta.
20 zent= 33, 2 pta.
50 zent = 83,193 pta.
euro 1 = 166,386 pta.
2 euro = 332,772 pta.

BILLETEAK

5 euro = 831,93 pta
10 euro = 1.663,86pta.
20 euro = 3.327,72pta.
50 euro = 8.319,3 pta
100 euro= 16.638,3 pta.
200 euro= 33.277,2 pta.
500 euro= 83.193 pta

Hauek izango dira aurrerantzean txanpon eta billeteak.

PEZETAK bizi motza du, dagoeneko. Laster Euro eta zentimoak izango ditugu patrikan (hala nahi!); urtebete baino gutxiagora.

2002-KO URTARRILEAN HASITA

Datorren urtean bi edo hiru hilabete izango dira ohitzeko jarriko dituztenak. Bitarte horretan bi txanponak erabili ahal izango dira; baina, pezetak merkatutik kentzeko helburuarekin. Urtarriletik martxorarte adibidez, erosketak pezetetan egin eta bueltak eurotan emango dizkigute. Orain, Bankuko kontuak eraman litezke eurotan, baina, txanponik erabili ez. Enpresa batzuk dagoeneko ari dira beren kontabilitatea bi modutara eramaten, produktuak exportatzen dituztenak gehien bat.

JENDEA LASAI


Euskadiko Kutzako Pedro Galardik esan digunez "kaleko jendea" dago kezkatuena, adinekoa gehien bat. Dezimalak, kanbioak... bildurra ematen die. Gainontzean, enpresa munduan ez omen du kezkarik sortzen txanpon berrira egokitu beharrak. □

EROSKETA EUROTAN

Produktua	Ptatan	Eurotan
- Ogi barra	125	0,75
- Dozena arrautza	180	1,08
- Kilo xerra	1.300	7,81
- Mediana	1.700	10,21
- Labadora bat	70.000	420,70
- Telebista bat	80.000	480,80
- Kotxea	1.500.000	9.015,18
- Gasolina superra	150	0,9
- Gasoila	135	0,81
- Etxea	20.000.000	120.202,42
- Eguneko menua	1.100	6,61
- Kafea tabernan	130	0,78
- Kilo sagar	190	1,14
- Botila sagardo	160	0,96
- Seiloak	40	0,2
- Egunkaria	150	0,9
- Esne kaja	100	0,6

Aritz Zerainek irabazi du 7. Tabernetako Bertsolari Txapelketa

■ Bigarren Gorka Tolosa geratu zen ■ Aurreko urteetako txapeldunek kantatu zuten, atzo.



Aritz txapeliduna eta Oxan sari emalea, biak pozik.

BADIRA sei urte Tabernetako Bertsolari Txapelketa jokatzeko hasi zela; aurten zazpigarrena jokatu da. Aurreko urteetako lau txapelidun: Zerain, Tolosa, Txuria eta Esteban (Iurrek eta Olanok ez zuten kantatu); Xapo eta Barrenetxea aritu ziren atzo, lepo betetako tabernan.

FAMILIAKO KONTUAK
Xanta gajjartzaileak familia bateko pertsonaia ezberdinen paperean jarri zituen bertsolariak: Aitona, aita, ama, alaba, semea eta txakurra. Aldiro egoera bat asmatu eta kantatu behar izan zuten sei bertsolariak, beren papera defendituaz. Azkenean, txakurra gailendu zen. □

Hernanin aldizkari berria aterako da: 'Hitzaletik'

■ Hilean behin aterako da aldizkaria.

HERNANIN aldizkari berri bat ateratzeko asmotan dira. Jendeak argitara eman nahi dituen testu, poesi... aterako dira, hilean behin. Herriko taberna, komertzio eta dendetan

banatuko da aldizkari berria.

HELBIDEA

Idazlanak nora bidali lehenengo alean bertan azalduko da. □

BIKAIN
OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti
Bikain...

Eziago poligonoa. Tel. 943 55 00 89
Elkano 12 - Tel. 943 55 31 42
Orkolaga 19 - Tel. 943 33 14 87
20120 HERNANI

AMEGAR, C. B.

ETXE TRESNAK

SUKALDE ALTZARIAK
Izpizua 27

ELEKTROGAILUAK - TB -
BIDEOAK - HI-FI - OPARIAK
Txirrita kalea 15

Tel 943 551125-Faxa 943 551603
HERNANI (Gipuzkoa)

BEGIRA OPTIKA



URBIETA 8, TEL.: 943 55 41 54 HERNANI

Antziolan botatako etxe azpian ez dago gerra zibileko bonbarrik

■ Ertzaintzako artzilariak aritu ziren bila, atzo goizean.

ANTZIOLAN bota berri dute Imazeneko etxe zaharra. Azken egunotan zurrumurrua zabaldu da etxe azpian, lurpean, gerra zibileko obus bat ote zegoen. Konstruktoreak esan digunez etxea saldu zienean hala esan zien jabeak, eta badaezpada ere konprobatu egin dute.

GOIZA MIAKETAN

Goizeko 09:00etatik 11:15 arte itxita egon zen Antziolako bidea, atzo. Zorua metro eta erdiren bat zulatu zuten behe-
ra, baina, alperrik; han ez zen gerra zibileko artilleriarik azaldu. □



Imazeneko etxea zena; oso behera zulatu behar izan dute.

■ FUTBOLA

Hernani-Zalla gaur Zubipen

Azken partiduan Errealaren aurka itxura ona eman arren galdu egin zuten Hernaniko mutilek. Gaur itxura on hori emaitza on bihurtzen saiatuko dira bizkaitarren aurrean. Zubipen 16:30etan.

NESKAK BERDINEAN

Atzo ezin izan zioten Ordiziari gainik hartu; partidua 0-0 bukatu zuten. □

■ PELOTA

Erroizenea eta Argote San Anton sariko irabazle

■ 22-4 nagusitu ziren Sorrarain-Bengoetxearen aurka.

ELGOIBARREN jokatzeko garrantzitsu hau. Erroizenea eta Argotek *etorkizuneko* kategorian jokatu zuten. Finalean faborito Sorrarain eta Bengoetxea baziren ere (adinez zaharra-
goak dira), erraz lortu zuten garaipena Erroizenea eta Argotek.

PALETA GOMAN EZ ZUTEN JOKATU

Lasa eta Martinezek partidua zuten atzo Luiandoren kontra. Arabarrak, ordea, ez ziren azaldu, istripua izanda koilarinarekin baitago pelotari bat. Orain federazioak esan behar-
ko du partidua jokatu den ala ez. □

■ ERRUGBIA

Jubenilak 'Euskal Liga'ko lider dira Ordiziari 41-0 irabazita

■ Nagusiek gaur jokatu dute Gernikaren kontra ■ Goizeko 11:30etan, Landaren.

PARTIDU garrantzitsua irabazi zuten atzo jubenilek, Landaren; eta nola gainera! Lau talde ari dira Euskal Liga jokatzeko eta lehen buelta partidurik galdu gabe bukatu du Hernanik: lider. Aurren bigarrenak Espainiako Liga jokatu dute.

NAGUSIAK HIL ALA BIZI

Denak ematera irten behar dute gaur hernaniarrek; Gernikari irabazi ezean maila galtzeko arrisku handia baitute. Irabaziz gero, berriz, badirudi arnastu bat hartzeko moduan izango direla. □



Hernaniko defentsak ez al ditu izango galtzerdiak adina zulo!

LEHIAKETA (AZKEN EGUNA)

BA AL DAKIZU NON DAGOEN?



■ JOXE Mari Zelarainek irabazi du Kronikako *Ba al dakizu non dagoen?* lehiaketa. Maddi Iradi, Putre, Denis Sorondo eta Marian Apezetxea izan ditu kontrario gogorrenak. Joxe Marik aitortu duenez hamaika kilometro egin behar izan du bazterrak bilatzeko; kasik mendizaleteraino.

■ KORO eta biak ageri dira argazkian, BENTA BERRI jate-txean. Ondo merezitako saria izango du irabazleak: Kronikako urteko bilduma eta bi lagunentzako afaria, Benta Berrin bertan. On Egin!

■ HITZ BITAN

✓ MUSIKA

Drindots taldea gaur Oialumen 20:00etan. Dantzalekuko atek arratsaldeko 19:30etan zabalduko dira.

✓ WATERPOLOA

Maila Nazionaleko taldeak Easo hartuko du gaur kiroldegian. Partidua eguerdiko 13:00ean hasiko da. Hernaniarrek garaipen berri bat erantsi nahi diote euren aurtengo kolezioari.

✓ KANTUZ ABESBATZA

Atzo ilunabarrean Astigarragan abestu zuen Kantuzek. Sagardo denboraldiaren hasiera dela eta, asteburu honetan aldameneko herrian izango diren hainbat ekitaldiren barruan egin zen emanaldia.

✓ ESKUBALOA

22-23 irabazi zion Hernanik Urdaibairi. Garaipen honekin hernaniarrek bizkaitarrei aurre hartu die sailkapenean eta beste emaitzen arabera 2. edo 3. izan daitezke.

HERIOTZAK

Xabier Etxeberria Zipitria

Atzo hil zen 65 urte zituela

Hileta elizkizuna bihar, astelehena, arratsaldeko zazpitan, Juan Bataiatzailea Parrokian.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093
▶ Udaltzaingoa: 943 333288
▶ DYA: 943 464622
▶ Autobusak: 943 556662
▶ Anbulatorioa: 943 557750

✚ FARMAZIAK

▶ Egunez: Irigoyen
Elkano, 2
☎ 943 552087
▶ Gaez: Irigoyen
Elkano, 2
☎ 943 552087

UGALDE, S.A.
SUKALDE ALTZARIAK

Lastaola industrialdea p.16
Tel. 943.551.598
Faxa 943.552.067
20120 HERNANI

Zinel

ARALAR
TABERNA

ZAPA KALEA 8, Tel. 943.331506

IRAGARKI MERKEAK

■ Hernaniko jatetxe batean sukaldaria behar dugu.
☎ 943. 33 02 91

■ Yamaha Neos motoa salgai: ☎ 679-68 04 73